

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Hamaika autonomia erkidegok Nafarroaren proposamen bat izenpetu dute Espainiako Gobernuari eta Europari errefuxiatuekin inplikazioa handiagoa izan dezaten eskatzeko

Nafarroako Gobernuaren proposamenez, adierazpen bat sinatu dute eta, haren bidez, Immigrazioari buruzko Sektoreko Konferentzia premiaz deitzeko eskatzeaz gain, Gobernu zentralaren konpromiso eza kritikatu dute

Miércoles, 09 de marzo de 2016

Hamaika autonomia erkidegok (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Kanariak, Kantabria, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Valentiako Erkidegoa, Extremadura, Balear Uharteak eta Nafarroa) sei puntuz osatutako [adierazpen bat](#) izenpetu dute; haren bidez, Europako erakundeen nahiz estatukideetako gobernuei, Espainiari bereziki, "inplikazio handiagoa" eskatu diete "bereziki indarkeriazkoak eta odoltsuak" diren gerra-gatazketatik ihes egitera behartuta dauden pertsonen arreta emateko orduan.



Hamaika autonomia erkidegok Nafarroaren proposamen bat izenpetu dute Espainiako Gobernuari eta Europari errefuxiatuekin inplikazio handiagoa izan dezaten eskatzeko.

Nafarroako Gobernuak sustatutako eta arlo horretako kontseilari arduradunek babestutako adierazpen horren bidez, hamaika autonomia erkidegoek errefuxiatuak hartzeko eta gizarteratzeko laguntza eskaintzen dute; prozedurak "desblokeatzeko" eskatzen dute, Europara "seguru" iritsi daitezten eta banaketa egoki bat egin ahal dadin.

Asteazkeneko bilkuran Foru Gobernuak ezagututako agirian, Europako erakundeak "krisi larri honek eskatzen duen mailaren pare ez izatea" kexatu dira. Irtenbideak emateko Espainiako Gobernuak erakutsitako "gaitasun eza eta erresistentzia" bereziki kritikatu dute, bai eta autonomia erkidegoek eskainitako laguntza "etengabe ukatzea" ere, nahiz eta haiek harrera eta gizarteratzeko eskumenak dituzten. "Ez da hori Estatuaren barnean bizi garen herri gehienon sentimendua", adierazi dute.

Horri buruz, hamaika autonomia erkidegoek jarduneko Gobernuari honako hau eskatu diote: administrazio horiek Europar Batasuneko eta Estatuaren beraren baliabide ekonomikoen banaketan parte hartzen uzteko, pertsona horiei behar bezalako arreta emate aldera"; hala, "egoera

horri era integratu batean erantzuteko dagozkion neurriak elkarrekin aplikatu ahalko ziren".

Gainera, premiaz, Immigrazioari buruzko Sektoreko Konferentzia deitzeko eskatzen dute, lurraldera iristen direnen edo kaltetutako zonaldeetan edo mugakide diren zonaldeetan birkokatuta dauden pertsonak geografikoki banatzeko irizpideen "ezinbesteko" definizioa aztertze aldera.

Azkenik, hamaika autonomia erkidegoek Diputatuen Kongresuari azpibatzerde parlamentario bat eratzeko proposatu diote; bertan, "asilo eta babesteko politiken eredu berri" bat eztabaidatuko zen, dauden erronka berriak aztertuz eta autonomia erkidegoak bertan parte hartuz hura definitu eta garatzeko. "Jazarpena jasaten duten pertsonentzako asilo eta babesteko gune bat eraikitzea helburu komun bat da, finkatutako beste demokrazia batzuetan diren modu berean", azaldu dute.

Autonomia erkidego horiek beren jarrera argitara eman nahi izan dute, honako hau kontuan hartuz: "Errefuxiatuen krisiari administrazio guztien laguntzarekin bakarrik erantzun daitekeela, hau da, Estatua, autonomia erkidegoak, udalak eta toki-erakundeak batuta.

Adierazpenean, autonomia erkidegoek gogorarazi dute babesaren izenpetutako nazioarteko itunetatik sortutako eskubide bat dela, Giza Eskubideen Adierazpena eta Genevako Hitzarmena bereziki eta, beraz, hura izenpetutako estatuen betebeharra dela.

"Gure memoria historiko berrian oso presente dago diktadura frankistan zehar gure hainbat herrikideei babes-eskubideak zer-nolako mesedea egin zien, eta horrek asilo-eskubidearen balioa hobeto ulertzen laguntzen digu", gogorarazi dute.

"Autonomia erkidegoek adierazi dutenez, babes-politikak, jazarpena jasandako pertsonen nazioarteko babesaren eskaintzeaz gain, beren erabateko autonomia eta gizarteratzeko helburua jaso behar du barnean. "Europako erakundeak Europako ateen aurrean gertatzen ari diren gatazken larritasunaren mailan ez daudela erakusten ari dira, eta testuinguru horretan, haien ondorioei erantzuteko gutxieneko giza konpromiso bat islatzeko gaitasunik izan gabe, Europan eraikitzea hainbeste kostatu den bizikidetzareduarekin bateraezinak diren jokabide nahiz planteamenduak aherian geratzen ari dira", salatu dute.